

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4205

EBAZPENA, 2015eko irailaren 14koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzen berri ematen duena.

2015eko ekainaren 17an argitaratu zen EHAA 2015eko ekainaren 17ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu honen 13.1 artikulua dioenez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak hartutako Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei banakako jakinarazpenik egingo ez zaienik.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko ekainaren 17ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta horien guztien onuradunak argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 14a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ANTZOKIETAN EGOITZA-PROIEKTUETARAKO
LAGUNTZAK

2015. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako diru-laguntza eman zaien zerrenda.

Eskatzailea	Diru-laguntza jaso dezakeen ekintza	Diru-laguntza
Ametx Erakunde Autonomoa	Egoitza programa: Markeliñe	19.981
Astarloa Kulturgintza	Egoitza programa: Ganso/Karrika	20.119
Azpeitiko Udala	Egoitza programa: Oholtzaberri.	9.051
Urnietako Udala	Egoitza programa: Aukeran	10.349
Zigoitiko Udala	Egoitza programa: Panta Rhei	20.500